



Santa Krutz eguneko ospakizunak

Andoaingo Santa Krutz jaietan tradizio handiko eguna da. Urnietan ere ospatuko dute, Buruntza mendiaren bidean dagoen Azkorteko ermitaren inguruan / 14

Andoaingo Udalak Nafarroa plazako haur parkea estaltzeko agindua jaso du / 7

Euskalduna eta Urnieta KE klubei aitortza, Gipuzkoako Futbol Federazioaren mendeurrenean / 12

Sanferminetako bortxaketaren epaiak gizartea asaldatu du

Apirilaren 26an eta 27an ehunka herritarrek protesta egin zuten Andoainen eta Urnietan deituriko bilkura eta manifestazioetan. Andoaingo Udalak sentsibilizazio kanpaina abiatuko du jaiotan. / 16



AIURRI



EZ EZETZ DA

JAIETAN ERASO SEXISTARIK EZ!!

EZ IZAN KONPLIZE



ANDOAINGO UDALA

ZER EGIN ERASO SEXISTA BATEN AURREAN

- Eraso sexista bat ematen ari dela ikusten baduzu, eraso jasaten ari denarengana jo eta laguntzarik behar duen galdetu.
- Lehenetasuna duen kontua da, beraz, eten une horretan egiten ari zarena eta eraso jasaten ari den emakumeari egin kasu.
- Lasai egon daitekeen leku batera eraman eta laguntza eska dezakeela esan. Arreta handiz entzun eta ez jarri zalantzan kontaktzen duena.
- Erasotzailearekin hitz egin, eta argi utzi ez dela jarrera sexistarik onartzen taberna edota txosnan eta bertatik kanporatu.
- Ez utzi erasotutako emakumea bakarrik eta, beharrezkoa izanez gero, lagundu dagokion tokira.
- Eraso LARRIA bada: jakinarazi ez duela arropaz aldatu behar, ezta bere burua garbitu behar ere, eta aho bortxaketa bada, ez duela jan edo edan behar, erasotzailea identifikatzeko eta zigortzeko frogak desagerrarazi daitezkeelako.
- Gerta daiteke emakume batek une horretan erabakitzea ezer ez egitea, edo ez jakitea zer egin nahi duen. Edozein kasutan hurrengo telefono zenbakiak eman, alboan eskuinaldean ageri direnak:

Udaltzaingoa:
943 300 819

Berdintasun arloa:
943 300 830
ext 397

Gizarte Zerbitzuak:
943 304 343

Osasun Zentroa:
943 006 670

Ospitala:
943 007 000

Larrialdiak: 112

Satevi:
900 840 111





Tamara Cadena andoainarra "El tiempo roto" azken liburua eskuan duela. AIURRI

Erromantizismoa eta intriga

Tamara Cadena *Judesty* nobelagile andoainarrak bere hirugarren eleberria kaleratu du. Maitasunaren generoa ardatz duen arren, intrigari eta suspenseari heltzen segitzen du oraingoan ere. Ernaitza liburudendan egingo du aurkezpena, laster

Xabier Lasa ANDOAIN

Zerekin egingo du topo El Tiempo roto eleberria eskuetan hartzen duen irakurleak?

Garai desegokian landutako amodiozko istorio bati egingo dio aurre; inork aurrerabiderik emango ez liokeen bikote baten istorioa da, azken batean. Bate-tik, Nolan daukagu, gizon heldua, familia-bizitza egina daukana; bizkarrean eskarmentu asko darama, trauma latz bat tartean. Eta bestetik, Giovanna, bizitzaren ez-titan dabilen gaztetxo; familia gatazkatsuko kidea da, eta se-

kretu itzelak eta mingarriak gordetzen ditu berarekin; etengabe oinazetzen dute sekretu horiek.

Biak ere ardatz ezberdinetan orbitatzen dabilzan sateliteak dira, baina patu maltzur baten eraginez, topo egiten dute une jakin batean, eta jakina, euren bizitzen norabideak bortizki aldatzen dira.

Andoainean maiatzaren 9an aurkeztuko duzu. Nola helduko diozu egun horri?

Egundoko ilusioa daukat aurkezpen horrekin, baina ez dut

ukatuko izua ere eragiten didala. Izan ere, niretzako lehenengo aldia da liburu baten argitalpen eta promozio prozesu guztiari aurre egin behar diodala. Erabat berria egiten zait argitalpenaren mundu hori, eta gauza asko ari naiz ikasten.

Zure eleberrietan, genero ezberdinen (erromantikoa, suspensea, misterioa...) arteko nahasketarako joera igartzen da. Badirudi nahiko eroso sentitzen zarela eremu horretan.

Bai, halaxe da. Irakurle gisa irakurri nahiko nukeen hori idazten saiatzen naiz. Beharbada, izan

daiteke genero erromantikoak izugarri erakartzen nauelako, edota, genero hori eta bere azpi generoak jorratzen dituzten eleberri ugari irakurri ditudalako. Kontua da, eleberri batek nigan interesa pizteko, nahitaezkoa dela amodiozko istorioren bat jaso dezala.

Iruditzen zaizu, arian-arian, berezko estiloa lortu duzula?

Ez da erraza nork bere estilo propioa lortzea, batik bat kontuan hartzen badugu Espainian, urtean, milioi eta erdi liburu saltzen direla genero erromantikoan. Estatu Batuetan, esate baterako, salmentak hamazazpi milioietara iristen dira, azpigeno erotiko nabarmenaren delarik datu horretan. Nolanahi ere, denentzako gustuko produktuak plazaratzen dira, eta nire eleberriak, zenbaitetan beste egileen antzekoak izan daitezkeen arren, badituzte ezaugarri bereziak, tramaren aurkezpena dela, pertsonaiak direla, e.a.

Nondik dator kizu unibertsoak, pertsonaiak, egoerak... eratzeko irudimena eta inspirazioa?

Egiari zor, ezingo nuke ezer ziurtasunez esan. Behar-beharrezkoa egiten zait idaztea. Edo

hobe esanda, buruan darabilkidana etengabe adierazteko premia sentitzen dut, eta modurik egokiena asmatutako zerbait idaztea dela iruditzen zait. Idaztera propio jartzen naizenean ez ezik, egunean zehar eta edozein unetan ere, boligrafoa, papera, pantaila eta teklatu bat eskuetan dudun bitartean, idazten hasten naiz. Errazago kontpontzen naiz letrekin, pertsonekin baino; baldintzarik gabeko adiskideak ditut hitzak, nahiz eta maiz ez errespetatu merezi duten adina... Esan nahi dut

"ERRAZAGO KONPONTZEN NAIZ LETREKIN, PERTSONEKIN BAINO"

"ELEBERRI BATEK NIGAN INTERESA PIZTEKO, AMODIOZKO ISTORIOEN BAT JASO BEHAR DU"

presaka ibiltzeak eta neurria hartzen ez jakiteak barkaezinak diren akatsak eragiten dizkidatela, puntuazio-markak batik bat.

Idazten ari naizenean ez dakit nola garatuko den istorioa. Has-tapenean, ezezagunak dira pertsonaia guztiak niretzat, eta poliki-poliki doaz definitzen. Gogoko dut pertsonaia horrekin ezustekoak hartzen dituen lehendabizikoa izatea, ohartzen naizenean pertsonaia batek sekula pentsatuko ez nukeen gauzak egiten dituela.

Badaukazu harremanik irakurleekin? Ematen dizute iritzia?

Bai. Pozarren nago, gertuko jende gehienak irakurri baitu azken eleberria. Eta tira, oso kritika onak jaso ditut. Denak ere bi iritzirekin datoz bat: tramari dagokionez, aurreko bi elebe-

rrietatik aldendu egiten dela, eta idazle bezala antzematen dela eboluzioa.

Zer esango zenioke eleberrien kontsumitzaile horri; oraindik ezagutzen ez zaituenari?

Esango nieke tramekin gozatu egingo dutela nire eleberriak irakurtzen badituzte. Nahiz eta maitasuna oinarri izan, asko daukate suspensetik eta intrigatik. Genero poliziala eta misterioa nahasten dituzten eleberriak dira. Azken biak norabide aldaketa asko dauzkaten thrillerrak dira, eta ondo definitutako pertsonaiak sartzen dira jokoan, hainbat dualtasun planteatzen dituztenak; traizioa, gezurra, maitasun eza... Eta hori guztia, ikertu behar den eraiketa batek zipiztinduta.

Bi lehen eleberriak merkatalgune handi batek babestuta kaleratu ze-

nituen, Bookandyou argitaletxearen literatura saria irabazi ostean. Oraingoan, zeuk argitaratu duzu. Zer dela eta aldaketa? Liburuaren merkatuaren egoerak behartu al zaitu horretara, ala propio hartutako erabakia izan da?

Biak, batera. Liburu bat atontzea urtebete edo biko lana izaten da normalki, eta ondoren argitaletxeren baten erantzunaren zain geratu behar izaten da. Gutxitan erantzuten dizute; urte bete pasa eta gero jasotzen da mezuren bat, eta orduan ezezkua izaten da gehienetan. Demagun argitaratzeko prest agertu zai-zula baten bat; bada, huskeria da idazleak jasotzen duena, %7a edo %10a, asko jota.

Ostera, autopublikazioak onura ugari dakar berarekin, nahiz eta lan guztia norberak egitera behartuta egon; promoziorako aukera gehiago daukazu. Sarea mugagabea da eta salmentarako bide gehiago eskaintzen dizkizu.


Hilabete batzuk igaro dira eleberria modu autogestionatuan argitaratu zenuenetik. Nola doa esperientzia? Finantzaketa, promozio lan pertsonala, salmenta...

Ondo joan dira lehen hilabeteak, baina ez da ahaztu behar modu jarraituan egin behar dela promozio eta salmenta prozesu guztia. Idazketari beste lan bat erantsi behar izan diot. Lan guzti horri ez badiozu denbora eskaintzen, ez duzu saltzen, jendea ahaztu egiten da zurekin. **Laugarren eleberriari heldu omen diozu jada. Zerbait aurrera zenezake?**

Orrialde mordoia idatzita daukat, baina zehaztu gabe daukat generoa, trama, gaia... Hori atletan aurrera egin ahala eta irudimena azaleratu ahala jakingo dut.

"POZARREN NAGO, GERTUKO JENDE GEHIENAK IRAKURRI BAITU AZKEN ELEBERRIA"

"AUTOEKOIZPENAK ONURA UGARI DAKAR, NAHIZ ETA IA DENA NORBERAK EGITERA BEHARTUTA EGON"



Maiatzaren 9an Andoainen aurkeztuko du liburua, Ernaitzan. AIURRI

Tamara Cadena, 2005az geroztik Andoainen bizi den idazlea

Tamara Cadena Quito (Ekuador) 1967an jaio zen. 1999an Donostiara heldu zen familiarekin; aulki gurpildun batean ibili behar eta, Euskal Herrian erraztasun handiagoak izango zituela pentsatuta. 2005az geroztik Andoainen bizi da.

'El acuerdo' eleberriarekin egin zen ezaguna irakurleentzat, 2009an. Bitxia izan zen nola heldu zen liburuaren merkatura: bere idazlana eleberrien on line txapelketa batera aurkeztu zuen. Internauten botoek erabakitzen zuten irabazlea, eta bereak 30.000 boto jaso zituen, beste 240 eleberrien gainetik geratuz.

BIBLIOGRAFIA:

El acuerdo (2009).
Adios sin nombre (2011).
El tiempo roto (2017).


LIBURUAREN AURKEZPENA ANDOAINEN:

Maiatzak 9, asteazkena.
Ernaitza liburu-denda.
20:00. Ekitaldi irekia.

Bideo sorta zabala sarean




Antia literatur lehiaketa



Pikabea-Arizmendi desafioa



Bertso saioa Gaztetxean



Erreka jaitsierako protagonistak

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



ZABALIK

IÑAKI OTAMENDI ANTIMILITARISTA

Armagintza

Mugak Zabalduz karabanak gogorarazi digu urrutiko gatazkak ez direla soilik pantaila bidez ikusten: telebistak edo ordenagailuak ispilu ere badira, eta Andoain ispiluaren aurrean jartzen bada gure herrian 1937. urtean kokatu zen Sociedad Anónima de Placencia de las Armas SAPA armagintza enpresa agertuko zaigu [Leyçaur 13 liburuan Victor Placencia Mendiak "SAPA. Trayectoria histórica de una empresa (1935-1985)" lana argitaratu zuen]. 80ko eta 90eko hamarkadatan herriko talde antimilitaristan aritu ginenok soldaduskaren aurkako borrokaren bidez gizartea desmilitarizatzea eskatzen genuen, baina garai hartan publikoki gure kezketako bat adieraztera ez ginen ausartzen: Andoainen bertan gerrarako produktuak egiten zirela. Garai horietan krisi ekonomikoak gogor jo zuen, industria asko itxi zen, langabetu kopurua handia zen..., testuinguru horretan ez genekien nola landu kasua. Barne bilerak eta armagintzari buruzko formazio saioak egin genituen adituekin, baina sekula ez genuen publikoki gure herriko enpresari buruz ezer esan: langileekiko kezka genuen, ez soilik krisiaren kolpeak jasaten zituztelako, andoaindar langileak ez genituelako militarismoaren kolaboratzaile bezala agerrarazi nahi. Bestalde SAPAn oihalgintzarako makinak ere egiten zirela bagenekien, eta enpresak ekoizpen zibilean etorkizuna izateko itxaropena genuen.

Soldaduska desagerrarazi genuen, eta egun, gizartean gerraren aurkako iritzia geroz eta zabalagoa denean, Sapaplacencia.com webguneak erakusten duen bezala, Andoainen tankeentzako abiadura kaxak edo hegazkinen aurkako kanoien mantentze lanak egiten dira. Espainia, Turkia edo Estatu Batuetako armadak izan dituzte bezero. Produkzio militarrean ez da etenik egon 81 urtetan zehar, baina etorkizunerako beste aukera alternatiboak aztertzeke garaia iritsi daiteke. Mugak Zabalduz karabanaren Andoaingo geldialdia baino lehen, ez da herriko eragile ezberdinekin edota langileekin gaiak mintzatzeko denbora asko egon, baina garbi dugu enpresaren produkzioa aldatzeko edozein proposamenean lanpostuen egoera lehentasunez aztertu beharko dela. Prozesu komplexua da armagintza industria jendartearentzako onuragarria den industria zibil bilakatzea, eta gizartean kontzientzia sustatu beharko da, herri administrazioak, enpresak eta sindikatuak norabide horretan lanean jar daitezten. Epe motz, erdi eta luzerako plangintzatan pentsatzen hasi beharko da, gerrarako ekoizpenik gabeko Euskal Herria helburutzat duen politika ekonomikoetan pentsatzeko garaia baita.

Gatazken ispiluan ikusten duguna aldatzeko borondatea badugu, hemendik aurrera herrian bertan lanketa hori egiteko aukera berriak sortu beharko dira.

POSTONTZIA

Andoaingo kale-garbitzaileen aldi baterako lan-poltsaren sorrera dela eta

KALE-GARBITZAILEEN LAN-POLTSARAKO HAUTAGAI TALDEA

Idatzi honen bidez, kale garbitzaileen lan-poltsarako hautagaiei bigarren ariketa egiteko modua salatu nahi dugu.

Gure ustez, mota honetako ariketak ezin dira ordu desberdinetan burutu, ariketa bera izanik, horri buruzko informazioa ezkutuan zabal litekeelako eta horren ondorioz proba berdina lehen orduan eta ondorengo orduetan egiten dutenen artean baldintzak ez direlako berdinak izaten. Alegia, ez direla berdintasun baldintzak betetzen eta ondorioz hautagaien arteko berdintasun printzipioa urratzen dela.

Gauzak horrela, filtrazioa egon litekeela uste soila ariketa baliogabetzeko arrazoa dela uste dugu guk.

Lehen ariketa gainditu zutenen artean sailkapena egin zuten, eta hurrenkera hori erabili zuten bigarren ariketarako txandak osatzerako garaian.

Hona hemen kale-garbitzaileen lan-poltsarako hautagaien bigarren ariketan emandako datu esanguratsua: Lehen txandan hamasei

ARIKETA BURUTU DEN MODUA GAITZETSIZ, BIGARREN ARIKETA ERREPIKA DEZATELA ESKATZEN DUGU

hautagaietatik sei kanporatu egin zituzten. Hurrengo txandatan, ordea, hogeita hamar hautagaietatik bi besterik ez zituzten kanporatu.

Oharra: Bigarren ariketa salatzen dugunok argitu nahi dugu arazo honen guztiaren erantzukizuna kale-garbitzaileen lan-poltsa sortzeko deituriko lehiaketa-oposizio irekiko epaimahai kalifikatzailearena dela, ez beste inorena.

Hori dela eta, argi utzi nahi dugu ordezkartza duten alderdi politikoek ez dutela zerikusirik gai honetan.

Ariketa burutu den modua gaitzetsiz, bigarren ariketa errepika dezatela eskatzen dugu.

POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: andoain@aiurri.eus | urnieta@aiurri.eus



Aiurri eskuragarri:
Ebez ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetak: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: ERROITZ
 ALJATUAK: ALJATUAK, nesteez, TOKIKOM
 BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA: ANDOAINGO UDALA, Urnietako Udala
 DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA: EUSKO JAURLARITZA GOBERNUA VASCO, Gipuzkoako Foru Aldundia, Hilduntasun Berlitasunerako Zuzendaritza
 ZIURTAGIRIA: 2017 Bitkarn
 BABESLEAK: Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



NIRE USTEZ

ALAZNE MANERO ARAMBURU AURRERA GURE AMETSA

Maiatzak 3, Azkorteko Gurutze Saindua

Udaberria iritsita, eta horrek dakarren poza eta bizitzaren berritzearekin, txango bat eginez Azkorteko Gurutze Sainduaren ermitarantz abiatu naiz. Kanpotik begiratuta zaindutako ermita dirudi, primeran kokatua, toki argi batean, urrutitik ikusgai, xume eta era berean ederra.

Duela urte askotatik urnietarra adopzioz, eta aitortzen dut tokiko istorioez erakarrita, ermitaren eta aldarean nagusitzen den kristoren irudi gotiko zoragarriaren historia gogorarazi nahiko nizuke. Urnietako Udal artxibategian informazio oso interesgarria aurki daiteke: Kristoren irudia eta bere ermita XIII. mendekoak dira. Irudia, Gurutze Sainduarena, Gipuzkoako arte gotikoaren irudirik onenetarikoa da. Lezoko Gurutze Sainduarenaren antzekoa.

Gerra, harrapaketa, izurri eta abarrez betetako bizitza gorabeheratsu bateko protagonista, Gurutze Sainduaren irudiak Urnieta, Astigarraga, Andoain, Hernani eta Lasarteko

elizkoiaren laguntza jainkotiarra eta Aranotik (Nafarroa eta Frantziatik zetozenak) edo kostako bidetik zetozen Donejakue bideko erromesei laguntza eta babesa adierazten die.

XIX. mendean, 1837ko karlistadan, O'Donellen liberalek arpilatu eta erre egin zuten. Irudia Jose Maria Mitxelena (Erauso Txiki baserrikoa) berreskuratu eta urte luzez Andoainen gorde zuten. Gerora, Urnietako Santa Leokadia ermitara ekarri zuten.

Suntsitutako ermitaren hondakinen ondoan egiten zen elizkizunera eta gurutze-bidera hainbat urtez joan ondoren, Gasteizeko apezpikutzara berreraikitze baimena eskatzea erabaki zuten eliztarrek. Baimena lortu ondoren, gure herrian ohikoa izan den bezala, eliztarren diruarekin eta auzolanean berreraikia izan zen.

1969ko abenduaren 28an, gaur egun urnietar asko gogoratzen duen data, ermitaren zati bat erori egin zen ondoan dagoen harrobiko lanen ondorioz.

Berriz ere, Urnietako bizilagunen babesarekin, oraingoan, Marcial Garmendiak (Beltran baserrikoa) eta Antonio tabernako Manuel Igerategik Kristoren irudia Santa Leokadia ermitara ekarri zuten. Donostiako apezpikutzako arte sakratu batzordeko kide Manuel Lekuonaren gidaritzapean berri zuten, eta diotenez, Miguel Olaskoagak zaharbertzearen gastu guztiak bere gain hartu zituen. Ermitatik kanpaia, sarrerako arku zorrotz zoragarria, ur bedeinkatuaren ontzia eta leiho borobila berreskuratu ahal izan ziren.

Ermita berria ondoko mendi-bizkar batean eraiki zen, Burundainen, eta horixe da nik une honetan ikusten dudana. Herritarren debozio eta lan nekaezinari esker altxa zen berriro. Zerrenda luzea da: Banakakoen diru ekarpenak, aurrezki kutzak, zenbait dohaintza (Donostiako mendizale batzuen, adibidez) eta pertsona askoren kementa. Hala nola, Galdeano DVko Hernaniko berriemailea, Teresa Amuategi, Miguel de

Olaskoaga, Zunzunegi, Aita Iriondo, Aita Lasa, arkitektoak, zaharbertzeak, Aita Salesiarrak eta Tardié jauna.

Etengabe aurrerantz doan gizarte honetan, norberaren onura guztien onuraren oso gainetik dagoenean, nire ustez, gure aurrekoek eta ez hain urrunekoek, 1970eko hamarkadan berreraikitze lanetan parte hartu zutenek emandako ereduarekin, bene-benetako eskertza merezi dute. Bereziki, bertakoak eta kanpokoak garenok ermita honetaz eta Gurutze Saindu honetaz gozatzeko jarraitzea ahalbideratzeagatik.

Azkorteko Gurutze Sainduak ondo mereziak ditu gure maitasuna, debozioa eta gutxienez maiatzaren 3an eta ondorengo egunetan bisitaldia jasotzea.

Jaia, gure folklorea merezi ditu. Eta zergatik ez, guk ere merezi dugu haren babesa.

Zain ditzagun gure kultura eta historia, zeinetan, dudarik gabe auzolana giltzarri izan den. Espero dut, guztion laguntzarekin, auzolanean, horrela izaten jarraitzea.

HAU ERE BADUGU!

Errefuxiatuen aldeko martxa



Twitter kontuan zabalpen handia izan du martxaren sustatzaileek joan zen larunbatean Goikoplazatik igorri zuten bideoa. Udalak harrera egin zien martxako partaideei alkatearen adierazpenarekin, agurreko dantzarekin eta Alaia Martinen bertsoekin. Martxaren lehen eguna zen hura. Hendaikatik abiatu ziren eta Iruñeara bidean Andoainen geldialdia egin zuten. SAPAK armagintzarekin duen lotura salatu eta manifestazioan Goikoplazara iritsi ziren. Aiurri.eus gunean martxaren bideoa eta argazki-sorta ikusgai daude.

Pailazoaren saiorako saltokiak eskualdean



Aiurrik antolatuta, pailazoek ikuskizun berriena eskainiko dute Urnietako Egape ikastolako jolastoki estalian. Sarrerak dagoeneko salgai daude. Andoainen, Aiurri eta Zumea kaleko Ernaitzan salgai daude, eta Urnietan, elizaren ondoko Bikain kafetegian eta Idiazabal kaleko Xauxar tabernan. Buruntzaldean salgai izango dira honako bi herrietan ere: Hernaniko Leokadisti liburudendan eta Lasarte-Oriako Ttakun euskara elkartearen. Sarreraren prezioa 7 eurokoa izango da, alde zurretik eta egun berean.

DATUA

Parte hartzea

Santa Krutz jaien atariko krosetan bezala, koadrilen egunean ere ehunka izango dira parte-hartzaileak. Jaiak duen indarraren seinale da hori. Ez dira, ordea, nabarmendu beharreko ekitaldi bakarrak. Beste zenbait ekitalditan ere parte hartzea nabarmena izango baita. Esaterako, sagardo dastaketan edota pintxo lehiaketan. Sagardozaileek, igande eguerdian, hamazortzi sagardogileren uzta dastatzeko aukera izango dute. Tabernei dagokionez, hamasei tabernetako sukaldariek izena eman dute pintxo lehiaketan.

GORA ETA BEHERA



Eraso sexisten aurkako sentsibilizazio kanpainak

Gizartea gehien asaldatzen duen arazo sexu erasoena da. Azken hilabeteotan Andoaingo Asanblada feminista sentsibilizazio lan handia egiten ari da, eta baita Udaleko berdintasun saila ere. Santakruzak hasterako, herri ekimena eta udal erakundea sentsibilizazio kanpaina bana burutzen ari dira arazo larria saihesten ahalegintzeko.



Etorkizuneko idazleak trebatzeko lehiaketa

Musika, antzerkia, dantza eta irabazleen ipuin zatiez aberastu zuten aurtengo Antia Literatur sarien 24. edizioko sari-banaketa ekitaldia. Epaimahaikideek aurtengo lehiaketara aurkeztutako lanen maila ona nabarmendu dute

Amaia Senperena URNIETA

Kattalin Ansorena aurkezleak gidatuta, ikuslegoaren arreta bereganatzea lortu zuen ekitaldiak. Musikari dagokionez, Lurdes Iriondo Udal Musika Eskolako Ana Garcia piano-jotzailea, Kristina Solano trikitilaria eta Thierry Biskary abeslaria zuzenean aritu ziren. Haiekin batera, Aukeran dantza taldeko kideak. Lehiaketa bi kategoria ezberdinetan banatzen da; haurren eta gazteen kategoria. Maila bakoitzeko hiru sari banatu zituzten.

Idazlanen maila ona

Irabazleek erakutsitako mailaz gain, oro har, partaide gehien maila nabarmendu nahi izan zuten Ibon Egaña eta Amaia Serrano epaimahaikideek. Sariak banatu aurretik, irabazle bakoitzaren ipuinen pasarteak irakurri zituzten.

Musika, dantza eta ipuin zatien irakurketarekin ekitaldi atsegina osatu zuten.



Saridunak, aurkezlea, musikariak, dantzariak eta Udal ordezkariak sari banaketa ekitaldiaren amaieran. Bideoa ikusgai dago aiurri.eus webgunean. AIURRI

HAURREN MAILA

- 1.saria (tablet bat): Silvia Garcia Montes.
- 2.saria (book bat): Naia Pacheco Ubillos.
- 3.saria (book bat): Maddi Arrieta Etxeberría.

GAZTEEN MAILA

- 1.saria (500 euro): Ainara Isasti Aranburu.
- 2.saria (300 euro): Maria Muro Vaquero.
- 3.saria (150 euro): Arixen Unanue Usabiaga.

Zanpatuz ttiki eguna datorren maiatzaren 13an

Buruntza aldera joateko irteera antolatu dute. Izena eman beharra dago maiatzaren 8a baino lehen

Erredakzioa URNIETA

Zanpatuz mendi elkarreak hila-ren 13rako familia giroko irteera antolatuko du, Buruntza mendira. Goizeko 09:30ean Azkortekeko baselizatik irtengo dira, eta gurutzetik bueltan, hamai-

ketakoa egingo dute. Familia bakoitzeko 4 euroko prezioa ipini dute, eta ordainketa izena emateko garaian egin behar da. Maiatzaren 8a baino lehen Xauxarren eta Ikasmin akademian egin daiteke izen-ematea.



AIURRI

Sagardoa terraza garaian

Joan zen ostiralean "Terraza garaia, Euskal Sagardo Garaia" ekimena aurkeztu zuten Donostian. Euskal Sagardo deitura duten sagardoek kontsumoa sustatzeko helburuarekin, ekimenak maiatzaren 13ra bitarte iraungo du. Urnietako K10 Hotelak ekimenarekin bat egin duenez, bertako terrazan Euskal Sagardo deiturako sagardoaz gozatzeko aukera dago.



AIURRI



AIURRI

Aspaldiko bilkurarik jendetsuena

Aspaldiko elkarretaratzerik jendetsuena izan zen aurreko ostiralekoa, Urnietan. Nafarroako Auzitegi Nazionalak 2016ko Sanferminetan gertatu zen bortxaketa kasu ezagunaren harira emandako sententziaren aurka protesta egiteko 300 lagun inguru bildu ziren San Juan plazan. Iluntzeko 19:00tan hasi zen, eta isilpean igaro bazen ere, tarteka epaiaren aurkako oihu batzuk entzun ziren. Bilkura txalo artean amaitu zen.

Iritzi publikoan, Euskal Herrian eta Espainian, auzitegiaren epaiak amorrua eta haserrea eragin ditu. Andoainean, epaia aditzera eman zuten egunean bertan, kontzentrazioa eta gero manifestazioa egin zuten herriko kaleetan barrena. Eta biharamunean elkarretaratze berria udaletxe ondoan. Andoaingo eta Urnietako elkarretaratzeetan adin eta izaera oso ezberdineko bizilagunak bildu ziren, gertaerak gizarte osoan izan duen eraginaren adierazle.

Udal inbertsioei ekiteko bidea zabalik

Udalbatzako lehen puntuak aho batez onartu baziren ere, inbertsio eta kreditu eskaeren aztergaiekin heldu ziren desadostasunak apirilaren 26an egin zen Udalaren osoko batzarraldian. Udal inbertsioei onespena eman zioten, gehiengo osoz

Xabier Lasa ANDOAIN

Aho batez onartu ziren lehen-biziko puntuak; horien artean, merkataritza biziberritzeko plana, Goiburua auzoko toponimoen izendapena ofiziala egitea, eta, Donostiako Zubietako auzoaren eta Andoainen arteko mugalderoaren zati bati buruzko mugaketa gatazka planteatzea. Hortik aurrera, boto ezberdinarekin jokatu zuten alderdiek, gaien arabera.

Ia miloi eta erdiko inbertsioak egiteko kreditu espediente aldatetaren proposamenak ere aurrera egin zuen, EAJren kontrako botoekin eta gainerako baiezkoarekin. Besteak beste, honako obretara bideratuko da diru hori: Olagain eraikinaren fatxadaren konponketa, herri bideen inbentarioa, Lizarkolako pasealekuko konponketa, Bordaberri auzoan zubia egitea, eta, Doktor Huiziko parkea. PSE-EEk aldeko botoa eman arren, bere bozeramaile Lainez kritikoa ager-

Askoren artean, hainbat inbertsio

- Lizarkolako pasealekua: 208.000 euro.
- Bordaberri zubia: 102.000 euro.
- Doctor Huizi parkea: 185.000 euro.
- Asfaltatze lanak: 80.000 euro.
- Udal etxebizitzaren konponketak: 150.000 euro.
- Galardi haurreskolaren inbertsioak: 25.000 euro.
- Udal eraikinetako inbertsioak: Udaletxea 7.000 euro; Bastero 20.000 euro; Kiroldegia 20.000 euro, Eguneko zentroa 10.000 euro, Gazte Lokalaren ekipamendua 5.000 euro, CIP 3.000 euro, Olagain 80.000 euro.
- Zumea kaleko jardineraren kendu eta ingurua konpontzea: 55.000 euro.

tu zen proposamenarekin, bere ustez hirigintza batzordeetan ez delako behar hainbat informazio jakinarazi eta ez dagoelako justifikatua zenbait obren inguruan aurreikusitako prezioa eta horien igoera. Bestalde, EAJko Izagirrek salatua zuen Udalak ez dituela behar bezala landu aurrekontuak, eta horrexegatik kontrako botoa.

Kritiken aurrean, EH Bilduko Zuluetak adierazi zuen agintaldi osoan erabilitako formula erabiltzen ari direla inbertsio berriei dagokienean. Jeltzaleei zuzenduriko erantzuna izan zen hura. Sozialistei, bestalde, lan guztietan gastu aurreikuspenaren eta benetako gastuen artean aldea izan ohi dela erantzun zien.



Bi herrikide Ataria zerbitzuan ostegun arratsaldean, botoa ematen. AIURRI

Nafarroa plazako haur parkea estaltzeko eskaera nagusitu da

Udalak apirilaren 23tik 27ra sustatu zuen parte-hartze kanpainan bozkatuena izan zen, Zumeakoarekin batera

Erredakzioa ANDOAIN

617 herrikidek baliatu dute botoa emateko eskubidea. Aurreikuspenak betez, Nafarroa plaza eta Zumea plaza izan dira boto gehien jaso dutenak, populazio eremu handikoak izateaz gain, jende gehien erakartzen duten parkeak baitira. Bi aukeren artean zeinek boto gehien jaso, horixe zen argitzeko zegoena. Zenbaketa amaitu eta berehala, Jon Zulueta Udal gobernu taldeko bozeramaileak aditzera eman zuen emaitza. Botuemaileek bi aukera horien alde egin dute nabarmen, hirugarren aukera oso atzean geratu baita.

200.000 euroko partida, abiapuntu

Udalak orain egitasmoa lantzeari ekingo dio, eskuragarri dituen 200.000 euro zeregin horretara bideratzeko. Jon Zuluetak, Andoingo Udalaren izenean, esker ona adierazi zuen: "Eskerrak

Emaitza

Boto-emaileak: 617 boto.
Nafarroa plaza: 459 boto.
Zumea plaza: 402 boto.
Leizaur parkea: 81 boto.
Manuel Lekuona: 78 boto.
Etxeberrietako: 77 boto.
Bazkardo: 37 boto.
Karrika/Aiztondo: 28 boto.
Extremadura: 19 boto.
Goikoplaza: 4 boto.
Dr Huitzi: 3 boto.
Ondarreta: 1 boto.
Martin Ugalde: 1 boto.
Zuriak: 34 boto.
Baliogabeak: 6 boto.

eman nahi dizkiegu parte-hartzaile guztiei. Etorkizunean ere horrelako ariketa demokratiko gehiago egiteko aukera izatea espero dugu".



AIURRI

Errefuxiatuen aldeko martxa

"Mugak zabalduz Karabana EH" ekimenak deituta, apirilaren 28an bilkura jendetsua egin zuten Andoainen. SAPA enpresa parean elkarretaratzea egin zuten, armagintzarekin zerikusia duten negozioak salatu asmoz. Elkarretaratzea amaituta, Goikoplazara

abiatu ziren manifestazioan. Han, besteak beste, EH Bildu eta PSE-EE udal alderdietako ordezkariak zituzten zain. Dantza, bertsoak eta alkatearen adierazpenarekin harrera ekitaldia egin zieten martxako partaideei. Bideoa aiurri.eus gunean ikusgai.



Nafarroa plazako haur parkea estaltzeko proposamena jaso du Udalak. AIURRI

SANTAKRUTZAK JAI EGITARAUA

MAIATZAK 3

OSTEGUNA, SANTA KRUTZ EGUNA

10:30 Dultzaineroak kalean zehar.

10:30 Ikurriñaren jaitsiera.

10:30 Ezpata-dantza Santa Krutz elizan.

11:00 Meza Santa Krutz elizan.

11:30 Ezpata-dantza eta ondoren brokel-dantzak.

11:30 Andoaingo trikitilariak.

12:00 Txakoli dastaketa Santa Krutz parean.

16:30 Haur jolasak Zumea plazan.

18:30 Musika eskolako Konboak: Txukuna taldea eta Fino's band Zumea plazan.

19:00 Pintxo-pote musikala.

19:00 Tabernen arteko pintxo lehiaketa. Aurtengo parte hartzaileak: Tokitxo, Hiru, Bastero, Urkiola, Traiñerum, Irunberri, Txindoki, Gaztelutxo, Olajauna, Txuribeltz, Xaxi-metro, Muga, Amama Klaudia, Zeru, Txitibar eta Txalaka.

MAIATZAK 4

OSTIRALA, KOADRILEN EGUNA

11:00 Koadrilen arteko jokoak, Bekoplazatik.

14:30 Koadrilen bazkaria Makaldegian. Karpa ipiniko dute bertan.

17:30 DJ Bull-en musika saio ibiltaria.

18:30 Bizikleta festa Zumea plazan.

20:00 Olagain txistulari elkartearen eta Alberto Agirre abesbatzaren kontzertua Santa Krutz elizan.

20:30 Karaokea txosnatan.

23:00 Koban eta Egurra ta kitto taldeak zuzenean, txosnatan. Pintxada feminista.

MAIATZAK 5

LARUNBATA

08:00 Gaupasa egin dutenen arteko argazkia Espigoian.

09:30 Haurrentzako arrantza lehiaketa Espigoian.



Udaberriko fanfarrearekin amaiera emango diete jaiei aurten, Zumea plazan. AIURRI

10:00 Artisautza azoka Zumea plazan.

11:30 Urki dantza taldearen saioa Zumea plazan.

12:00 Bertsolarien eta txalapartarien kalejira Zumea plazatik.

12:00 Kantujira Basterotik hasita.

14:00 Auzo bazkaria Kale Nagusian. La Jodedera.

17:30 Erreka jaitsieraren iritsiera. Parte-hartzaileen hitzordua 16:00tan Bekoplazan.

18:00 Haur jolasak Zumea plazan.

19:00 Bakailao txapelketa Kale Nagusian.

19:00 Burrumba elektrotzaranga.

21:30 Zezen suzkoa, Zubiaurren hasita.

22:30 Peña Santa Krutz elkartearen danborrada. Elkartetik herrigunera abiatuko dira.

00:00 Rukula, Atom Rhumba, Ingo Al Deu? taldeak zuzenean txosnatan.

MAIATZAK 6

IGANDEA

09:00 Euskaldunaren mendi irteera. Egoitzan hasi eta Zumea plazan bukatu.

12:00 Sagardo lehiaketa Zumea plazan. Hamazortzi sagardogileren parte hartzea izango da, lehiaketaren 39. edizioan.

12:00 Taloa Basataloak taldearen eskutik, Zumea plazan.

13:00 Andoaingo Udal musika banda eta Mugaz taldea zuzenean Juanita Alkain plazan.

17:00 Soinuak musika eskolako ikasleen kalejira Basteron hasita.

18:30 Herri danborrada, Bekoplazan hasita.

18:30 Txili Pipar, Hail Noise, Dukkha eta Malkogarriyak herriko taldeen emanaldia Bekoplazan.

19:00 Plaza dantzak, Udaberriko fanfarrearekin, Zumea plazan.

AIURRI.EUS Egitaraua, egunez egun



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



**ORAIN
GIPUZKOA**

Zabala
Ordukari Bitxitegia

Ondo pasa Santakrutzetan!

Kale Nagusia, 14

☎ 943 593 745

Andoain

Gudari enparantza, 5

☎ 943 332 341

Hernani

Sagardo eta talo festa

Jaietako azken egunean, igandearekin, Zumeatarra elkarteak hamazortzi sagardogileren arteko sagardo txapelketa antolatu du Zumea plazan

Erredakzioa ANDOAIN

Eguraldiak lagunduz gero, Zumea plaza txiki gera daiteke. Sagardoarekiko zaletasuna handia baita, eta Andoingo sagardo txapelketa aski ezaguna baita. Andoaindik ez ezik, inguruko herrietatik ere hurbiltzen dira sagardoaz goatzera.

Taloa

Sagardoaren osagarri bikaina da, eta Basataloak taldeak da goeneko eskarmentu handia du.



Eskualdeko eta Gipuzkoa osoko sagardoaz gozatu ahal izango da. AIURRI



Epaimahaikideak argazkian, iazko irabazle izan zen Basteroko lantaldearekin. AIURRI

Hamasei tabernari, pintxo onenaren sariaren bila

Ostegun arratsaldeko pintxo potea ez ohikoa izango da herrigunean, jaietako pintxo lehiaketa ospatuko baita

Erredakzioa ANDOAIN

Azken urteotan indarra hartzen ari den ekimena da, herritarren parte-hartzea handia izaten baita. Iaz, esaterako, hainbat tabernariaren aurrikuspenak gaingitu egin ziren. Prestatu zituzten pintxoak agortuta, eskean ari ziren bezero guztiei eskaini ezin geratu ziren.

Aurtengoak Santa Krutz egunarekin ez ezik, ostegunarekin bat egiten du. Horregatik, ez ohikoa izango da pintxo potea. Parte-hartzea oso handia izango da, hamasei tabernarik izena eman baitute.

Tabernariak

Bastero plazatik hasi eta Zumea plazaraino, lehiaketara aurkeztu diren pintxoak dastatuz honako ibilbidea egin daiteke, maiatzaren 3ko iluntzean: Tokitxo, Hiru, Bastero, Urkiola, Traiñerum, Irunberri, Txindoki, Gaztelutxo, Olajauna, Txuribeltz, Xaxi-metro, Muga, Amama Klaudia, Zeru, Txitibar eta Txalaka.

Sagardogileak

18 dira denera: Andoingo Gaztañaga, Urnietako Eula, Oianume, Setien eta Urruzola, Adunako Aburuza eta Zabala, Aiako Izeta eta Satxota, Asteasuko Sarasola, Astigarragako Bereziartua, Larrarte, Lizeaga, Petritegi eta Rezola, Hernaniko Itsas-buru eta Otsua-Enea eta Usurbilgo Urdaira.



Talo jatea igande eguerdian Zumea plazan, Basataloak taldearen eskutik. AIURRI

Gora Santakruzak!

Gozatu jaiaz, baina ez izan konplize!
Jaietan eraso sexistarik ez!

ANDOINGO UDALA

Javier Corral xake jokalaria

Urnietarra nabarmendu zen Donostian martxoan jokatu zen Xakeko Nazioarteko Openean. Ez zuen irabazi, baina bederatzigarren postua lortuta, lehen gipuzkoarra izan zen. Xakean ezustekoa eman duen arren, Corralek hankak lurrean ditu

Xabier Lasa URNIETA

Zenbaterik zori ondu zaituzte Urnietan?

Xakea ez da batere ezaguna kirol lehiaren munduan, baina prentsan nire izena agertu da eta zoriondu naute, bai. Gainerakoan, etxekoek agertu didate poza; horretarako, aurrez kanpainaxoa egin behar izan dut. Xakea ez da mediatikoa, eta gainera, ni bezalako jendea *rara avis*-a izan daiteke. Ez da normala herri txiki batean, halako hobbyarekin nabarmentzea...

Ezustekoa eman duzu Donostian, nazioarteko lehiaketa batean.

Amateurra izanik maisuen artean muturra sartzea lortu dut, lehen hamarren artean geratuz. Lehiaketako ezustekorik handiena izan dela esan daiteke, bai. Halakoak gutxitan gertatzen dira. 2015ean, Open hori Kuwaiteko jokalaria batek irabazi zuen, maisua ez zena. Xakearen historian lehenengo aldian izango zen halakorik gertatzen zela. Egia da susmoak piztu zituela, ez ote zuen garbi jokatu. Izan ere, gaur egun informatikaren laguntza horrenbestekoa izan daiteke... Ezin izan zuten ezer frogatu, dena den.

Egingo zeniguke openaren kronika txikia?

Normalki bi eratako torneok jokatzen dira, itxiak eta irekiak. Itxiak ligaren sistemara lotzen dira. Denak denek aurka. Aurrez badakizu noren aurka jokatuko duzun, eta etxetik daramazu estrategia jokalaria bakoitzarekin erabiltzeko.



Autodidakta samar aritu da urnietarra xakean, bere joko hobetzeko maisuen liburuetan murgilduta. **AJURRI**

Jokalaria gonbidatuek soilik hartzen dute parte, maisuak dira gehienak, profesionalak. Torneo horietan sariak potoloagoak dira, oihartzun mediatiko handiagokoak. Irekietan, aldiz, edonor izan daiteke parte-hartzaile, aski da federatuta egotea. Ez du hainbesteko garrantzia noren aurka jokatu duzun; ez duzu aurrez aurkaria aztertu beharrik, eta horrexegatik erakargarri egiten dira amateurrentzat.

Donostian sistema suitzarra aplikatu zen. Horrela, puntu berberak pilotuta dauzkan jokalariekin hasten zara. Partidak irabazi ahala, aurrera egiten duzu lehiaketan, eta aurrera egitea gero eta zailagoa da, noski. Iristen da une bat non galtzen eta irabazten hasten zaren, txandaka. Azken bi partidatan erabakitzen da amaierako sailkapena. Nik bederatzita norgehiagoka jokatu nituen.

Gipuzkoan mailan, zein da zure maila?

Gipuzkoan, gaur egun, iruditzen zait 40 bat jokalaria izango direla nik baino ELO handiagoa daukatenak. ELO sistema mundu osoan erabiltzen da, jokalaria mailakatzeko. Zenbakien rankina da, jokalaria bakoitzaren indarra neurtzen duena. 2.040eko ELOarekin iritsi nintzen Donostiako openera, baina hango emaitzari esker, 60 puntu eskuratu nituen. Astakeria da hori, normalki gertatzen ez dena.

Gipuzkoan bi torneo dira famatuena, Donostiakoa eta Elgoibarkoa. Azken hori euskal federazioak antolatzen du, bertako jokalariai promozionatzeko. Niretzat amets hutsa litzateke hara gonbidatuko banindute.

Gogoratzen nola sartu zitzaizun xakerako sukarra?

Aruak bizilagun batek erakutsi zizkidala esango nuke, sei bat urte nituela. Urtetan aurrerago, 11 urteren bueltan, Urraka auzoan udabatean modan jarritzen

xakea; auzoko gaztetxoak arratsaldero kalera jaisten ginen partidak jokatzen irrikaz. Handik urtebetera, ikastolan xakeko taldea atera zuten eta bertan aritu nintzen beste herrien aurka. 16 urterekin, behin, adiskide batekin topo egin eta Andoingo Agustín Leitzako taldera joateko tentatu ninduen. Hara hurbildu nintzen, eta gaur arte. 1986az geroztik lehiaketetan parte hartzen dut; 32 urte daromatzen dinamika horretan murgilduta.

Openean lortutako mailak aurreantzean proiektiorik emango al dizu?

Ez dut uste. Lehen gipuzkoarra geratu izana pizgarria izan daiteke niretzat, eta saritzat hartzen dut aurretik egindako ahaleginagatik. Akaso inguruan xakea pittin bat sustatzeko balio dezake, baina ez gehiago.

Hobetzeko egiteko al duzu?

Amateurrak eguneroko bizitzaren menpe gaude. Hiru lanaldietan aritzen nintzen lehen, baina lanpostuz aldatu dut azken aldian, eta orain entrenatzeko ordutegi erregularragoa daukat. Arratsaldeak libre ditut, entrenamenduak planifikatzeko. Horrek eragina izan du nigan, xakean pittin bat hobetu ahal izateko.

Xake jokalariek koefiziente intelektuala goitiki daukazuela uste izan da beti...

Argi dago mundu mailako maisu handiak denak direla inteligenteak. Jakina, horrek ez du kentzen gero pertsona bezala kirten hutsa izatea! Egin kontu, xakearen historian, 200 urtetan, soilik maisu handiko 1.500 titulu banatu dira. Eta ez da ahaztu behar futbola eta saskibaloia kenduta, munduan federatu gehien dauzkan kirola izango dela.

Egia esan, jokoak arretatsua izatea eta sakonki kontzentratzen jakitea eskatzen dizu. Gainerakoan jai duzu, ezin zehaztasunez egin kalkuluak! Hortik aparte, lehiarekin zerikusia dauzkaten dohainak behar dituzu eduki, buru-estima, autokonfiantza... Aipatu ditudan ezaugarri guzti horiek premiazkoak dira jokorekin maitemintzeko.

Hausnarketarako joera duzuen pertsonak zarate, baina baita lehiakorak ere, beraz.

Hala da. Jokoan zehar, aurkaria garaitzea da buruan daukazun helburu nagusia.



Urnietako xake jokalariek Urraka auzoan dute Urnietako Udalak utzitako egoitza, haur parketik hurbil. AIURRI

Zeintzuk dira xakearen bertuteak?

Gazteentzako zein helduentzako egokia da. Ez diot akatsik ikusten. Ez dauka adin mugarik, gainerako kirolek ez bezala. Ezin merkeagoa da praktikatzeko, eta, kontzentrazioa, pentsamendu logiko zein abstraktua lantzen laguntzen du. Bestelako kirolekin uztartu liteke; are gehiago, lagunaria da edozein kirolean jarduteko orduan, eta seguru inoiz ez dizula min fisikorik edo lesiorik eragingo. Gazteentzat oso gomendagarria da; aurkariaren ideiak errespetatzen eta porrota onartzen ikasten dute. Garaioetan, badirudi kosta egiten dela galtzen jakitea. Xakea egokia izan liteke frustrazio txiki horiek barneratzeko.

Xakea jokoa ote den, kirola ote... Zer diozu zuek?

Jokoa da ezeren ginetik, baina egia da garaipenak eta galtzeak daudela tarteko. Jokalariari jokoak ez dio ahalegin fisikoa eskatzen, baina aurkari batekin lehian ari da eta lehiaketa dago azpi-azpian. Jokoa dela esango nuke batik bat, nahiz eta testuingurua aintzat hartuz gero beste edozein kirolean bezalatsuko baldintzak eman. Ofizialki, ez da kirol olimpikotzat hartzen, baina kirol jardueratzat bai. Orain urte batzuk, EAEko administrazioak kirolaren titulua kendu nahi izan zion xakea-

"JOKO ARAUAK BIZILAGUN BATEK ERAKUTSI ZIZKIDALA ESANGO NUKE, SEI URTE EDO NITUELA"

ri, eta protesta egiteko kalera irten ginen. Azkenean, atzera egin behar izan zuten.

Teknologia berriek izan dezakete-la eragina xakean aipatu duzu lehen.

Iraganean jokatzeko ez zenez beste erremediorik, xake klub batera joan edota lagun batekin geratu. Gau egun, interneta eta xakea ezin hobeki uztartzen dira. Etzetik atera gabe, pantaila aurrean uneoro aurkituko duzu baten bat zurekin jokatzeko prest. Erosoa da internet, eta gogoko duzun hobby hori jende askorekin partekatzeo aukera eskaintzen dizu. Gainera, galdu arren, inor ez da enteratuko (irriak).

Nolakoa da zure prestakuntza?

Bakarrik egin dut bidea. Liburuez baliatu naiz, batik bat. Izan ere, hobetzen joateko komeni da maisu handien jokaldiak analizatzea. Literatura asko idatzi da xakearen gainean; milaka eta milaka liburu argitaratu dira, gainerako kirolean guztietan bezainbeste. Norberaren gabeziak kontuan hartuta, xakea alderdi ezberdinetatik aztertu eta landu liteke. Oinarri-oinarritzko bi dohain edukitzen saiatu behar duzu: posizio bat behar bezala baloratzen jakitea, eta zure eta aurkariaren jokaldiak eta aldaerak ondo kalkulatzeko ikastea. Xakean, normalki, egoera baloratu egiten da, eta horren arabera, erabakiak hartzen dira. Behin helburua ondo markatuta, kalkuluen unea iristen da. Jakina, hasiberriak nahikoa dauka piezarik ez galtzarekin. Maisu baten maila, ordea, balorazioen eta kalkuluen eremuan nabarmentzen da.

Eguzki Xake taldeko partaidea zara Urnietan.

1992-1993an sortu zen kluba, eta bazkideak Urnietako Udalak utzitako egoitzan biltzen gara. Zenbait urtetan gaztetxoekin lan egin izan da, baina egun, federazio mailako lehiaketetan parte hartzea bideratzen ditugu indarrak. Bost jokalarik osatzen dugu taldea, eta Gipuzkoa nahiz EAE mailako txapelketetan jokatzeko dugu. Hamabost urtez xakearen Euskal Ligan aritu gara.

Aurtengo denboraldian, martxoan amaitu berri dena, ezin izan diogu mailari eutsi eta datorrenean Gipuzkoakoan jokatu beharko dugu.

Gazte edo helduren batek taldera hurbildu nahiko balu, zer egin beharko luke?

Behar bada urnietar askok ez dute ezagutzen gure taldea; Urraka auzoan daukagu egoitza, haur parketik hurbil. Nire telefono zenbakia erabil daiteke gurekin harremanetan jartzeko (626 365 043).

Utzita daukagu formakuntza-aren arloa Urnietan, esan bezala. Baina egingo genuke modua gure hurbileko taldea den Andoingo Agustin Leitza taldearekin harremanetan jartzeko; handiagoa da kopuruan. Eta gehiago zaintzen dute gazteen formakuntza.

"URRAKA AUZOAN UDA BATEAN MODAN JARRI ZEN XAKEA; HAMAICA URTE GENITUELA"

KARTELDEGIA: FUTBOLA

FUTBOLA

PREFERENTE MAILA

EMAITZAK	
Martutene-Euskalduna	3-3
Santo Tomas-Urnieta	3-1

SAILKAPENA

1 Deusto	65 puntu
2 Allerru	60 puntu
3 Euskalduna	58 puntu
9 Urnieta	32 puntu
10 Hernani	32 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

18:00 Euskalduna-Mariño / Ig, 6
18:00 Urnieta-Orioko / Lar, 5

ERREGIONAL MAILA, KOPA

EMAITZA

Euskalduna-Sporting	6-1
---------------------	-----

SAILKAPENA

1 Euskalduna	24 puntu
2 Landetxa	21 puntu
3 Astigarragako Mundarro	21 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

--- Euskalduna / Atsedena

IGOERA FASEA, NESKAK

EMAITZA

Hondarribi-Urnieta	0-2
--------------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDA

16:00 Urnieta-Touring / Lar, 5

JUBENIL MAILA, MUTILAK

IGOERAKO LIGAXKA

EMAITZAK

Urnieta A-Danena	4-1
Euskalduna A-Aloña Mendi	5-0
Euskalduna A-Aloña Mendi	4-1

SAILKAPENA

1 Euskalduna A	35 puntu
2 Beasain	31 puntu
3 Urnieta A	28 puntu
4 Allerru A	27 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

15:30 Aloña Mendi-Urnieta A / Ig, 6

KOPA

Urnieta B-Idiazabal	1-4
---------------------	-----

Billabona-Euskalduna B	2-3
------------------------	-----

SAILKAPENA

1 Billabona	30 puntu
2 Euskalduna B	28 puntu
6 Urnieta B	9 puntu
6 Lazkao	1 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

12:15 Ordizia-Urnieta B / Ig, 6
--- Euskalduna B / Atsedena

JUBENIL MAILA, NESKAK

EMAITZA

Amara Berri-Euskalduna	4-2
------------------------	-----

SAILKAPENA

1 Añorga	42 puntu
6 Oiartzun	17 puntu
7 Euskalduna	11 puntu
8 Amara Berri	11 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

12:30 Euskalduna-Tomas Lizeoa / Lar, 5
--

KADETE MAILA, MUTILAK

OHOREZKO MAILA

EMAITZA

Euskalduna-Hernani	1-2
--------------------	-----

SAILKAPENA

1 Antiguoko	74 puntu
7 Martutene	45 puntu
8 Euskalduna	37 puntu
9 Añorga	37 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

12:30 Antiguoko-Euskalduna / Lar, 5

KOPA

EMAITZAK

Vasconia B-Urnieta (4.multzoa)	7-0
Euskalduna-Billabona (7.multzoa)	1-2

ASTEBURUKO PARTIDAK

10:00 Urnieta-Sporting Herrera B / Lar, 5
16:00 Lazkao-Euskalduna / Ig, 6

KADETE MAILA, NESKAK

EMAITZA

Touring-Urnieta	7-1
-----------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDA

11:45 Urnieta-Oiartzun / Ig, 6

KARTELDEGIA: ARETO FUTBOLA

ARETO FUTBOLA

SENIOR MAILA

Jaixki-Euskalduna	2-5
-------------------	-----

SAILKAPENA

1 Hirukide	53 puntu
2 Tolargi	52 puntu
3 Oiartzun	46 puntu
4 Herrikide	44 puntu
5 Euskalduna	40 puntu
6 Lauburu	38 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

20:45 Euskalduna-Isu Leioak / Ostir, 4
--

ANDOINGO TXAPELKETA

EMAITZAK

B TALDEA

Powerade-Academia GF	2-3
Gorostidi-Irunberri	4-5
Ekaitz-Academia London	5-2
Ganbara-Olajauna	3-2

PARTIDAK

09:00 Keler-Txalaka / Ig, 6
10:00 Dad Kutxa-Ekhia / Ig, 6
11:00 H. Extremeño-Akerbeltz / Ig, 6
12:00 Lanbroa-C. Extremeño / Ig, 6

KARTELDEGIA: ESKUBALOIA, SASKIBALOIA

ESKUBALOIA**SENIOR MAILA, MUTILAK**

GIPUZKOAKO KOPA EMAITZA

EMAITZA

Munttarpe-Urnieta **19-32**

ASTEBURUKO PARTIDA

19:00 Urnieta-Bidasoa Irun / Lar. 5**SENIOR MAILA, NESKAK**

GIPUZKOAKO KOPA

EMAITZA

Munttarpe-Urnieta **23-14**

ASTEBURUKO PARTIDA

17:15 Urnieta-Egia Kopidin / Lar. 5**JUBENIL MAILA, MUTILAK**

GIPUZKOAKO TROFEOA, EMAITZAK

Hettich-Leizaran **22-18**Urnieta-Bidasoa Irun **25-26**

ASTEBURUKO PARTIDA

19:00 Leizaran-Urnieta / Lar. 5**JUBENIL MAILA, NESKAK**

GIPUZKOAKO TROFEOA, EMAITZA

Aiala-Leizaran **25-25**

ASTEBURUKO PARTIDA

16:00 Leizaran-Bergara / Lar. 5

GIPUZKOAKO KOPA, EMAITZA

Egia-Urnieta **26-18**

ASTEBURUKO PARTIDA

20:15 Urnieta-Bera Bera / Osteguna. 3**KADETE MAILA, MUTILAK**

FORU ALDUNDIKO TORNEOA

EMAITZAK

Komat Eibar-Leizaran (1. multz.) **21-28**Bera Laran.-Leizaran H. (B multz.) **27-21**

ASTEBURUKO PARTIDAK

17:30 Leizaran-Amenabar C / Lar. 5**11:45** Leizaran Horia-Usurbil / Lar. 5

GIPUZKOAKO KOPA, EMAITZA

Tolosa-Urnieta **29-24**

ASTEBURUKO PARTIDA

15:45 Urnieta-Ereintza / Lar. 5**KADETE MAILA, NESKAK**

FORU ALDUNDIKO TORNEOA

EMAITZA

Leizaran Horia-Bera Laranja **18-20**

ASTEBURUKO PARTIDA

17:30 Ordizia-Leizaran Horia / Lar. 5

GIPUZKOAKO KOPA, EMAITZAK

Aiala B-Leizaran Urdina **15-29**Ereintza-Urnieta **38-15**Urnieta-Bera Bera **21-33**

ASTEBURUKO PARTIDA

13:15 Leizaran Urdina-Elgoibar / Lar. 5**SASKIBALOIA****SENIOR MAILA**

EMAITZA

Ganbara-Bergara **56-66**

ASTEBURUKO PARTIDA

18:00 Zarautz Sharks-Ganbara / Lar. 5**KADETE MAILA**

EMAITZA

Ganbara-Hernani **51-47**

ASTEBURUKO PARTIDA

09:30 Goierri-Ganbara / Lar. 5**Itsaso zabalean igeriketa saioak egiteko aukera**

IGERIKETA Buruntzaldea IKT igeriketa taldeak itsasoko entrenamenduetan parte-hartzeko deialdia zabaldu die federatu nahiz federatuta ez daudenei. Itsasoko entrenamenduak formalagoak eta landuagoak burutzeko helburuz antolatuta dituzte saioak, beti ere material bereziak erabiliz, piraguaRekin eta lagun-

tza boia pare baten lagunduta. Ekainaren 11tik uztailearen 20ra bitartean izango dira itsasoko entrenamenduak, eta bi ordutegi aukera eskainiko dituzte. Lehena, astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan 16:00etatik 17:15etara; eta bigarrena, 19:00etatik 20:15etara. Izena ematen duten jende kopuruaren arabera bi ordutegi ezberdin ala bakarria eskainiko dute.

Informazio gehiago: info@buruntzaldea.eus-en edo 696 506 632 telefono zenbakian.

GRAVNI finala, urnietarren parte hartzearekin

PILOTA Ostiral honetan, senior mailako txapelketa ezagunaren finala jokatu da. Eskuz bina-

ka, Bizkaia eta Gipuzkoako taldeak lehiatuko dira. Gipuzkoarren kasuan, bi ordezkariak UKE taldekoak izango dira. Hots, Julen Loitegi eta Eñaut Esnaola. Ea txapela Urnietara ekartzeko aukera duten.

Aitortza Federazioaren mendeurrenean

FUTBOLA Gipuzkoako Futbol Federazioak, bere mendeurreneko ospakizunen baitan, aitortza adierazi zien herrialdeko klubei. Ekitaldira atzoko eta gaurko futbol taldeetako lehendakariak hurbildu ziren. Hala nola, Euskaldunakoak eta Urnieta Kirol Elkarteak



Euskaldunaren historia garaikidean lehendakari lanetan aritu diren hainbat lagun Futbol federazioak antolatutako ekitaldian.

Erredakzioa ESKUALDEA

Gipuzkoako Futbol Federazioak bere ehungarren urteurrena ospatzeko ekitaldia antolatu zuen Donostiako Miramar Jauregian, eta bertara Gipuzkoa osoko futbol taldeetako lehendakari eta lehendakari ohiak gonbidatu zituzten. Argazkian, zutik: Ramon Iriarte, Joxean Huizi, Pedro Irazu, Xabier Aldalur, Joxe Galparsoro, Jesus

Martin eta Gerardo Abrego. Makurtuta: Eneko Peñalbo, Joxerra Bengoetxea, Jose Joakin Jauregi eta Joxe Mari Oizartabal. Regino Otegi da falta den bakarra.

Urnieta KE elkartetik hiru ordezkari hurbildu ziren ekitaldira: Egun lehendakari den Joseba Lizasorekin batera, kargu berean aritu izan ziren Isma Hernandez eta Gaspar Esnaola.



Urnietako UKEko ordezkariak. DE TORRES

Herriartekoaren aurkezpena

PILOTA Andoingo Gazteleku pilota elkarteak ordezkariak izango ditu Gipuzkoako Herriarteko hiru txapelketetan. Joan-etorriko partidak izango dira. Palan, Andoain eta Olaberria aurrez aurre arituko dira hilaren 13an. Asteburu berean, gomazko paletan, Andoain eta Zumaia lehiatuko dira. Eskuz, Andoain eta Zizurkil hilaren 20an.





Kamel Ziani, Lourdes Colomo, Naroa Sagarna, Eneko Agirrezabal, Amaia Bernal eta Raul Gomezek osatu zuten podiuma.

Lasterkarien hitzordua maiatzaren lehenean

LASTERKETA Ateri zela eta korrika aritzeko eguraldi aproposarekin, jendetsua izan zen Zumeatarrak beste behin ere antolatu zuen herri krosa. Ibilbidean zehar jendetza bildu zen, korrika egiteko edota korrikalariak animatzeko



MAIATZAK 1, ASTEARTEA. ANDOAINGO SANTA KRUZ KROS HERRIKOIA 2018

IRABAZLEAK

1	31:22	Eneko Agirrezabal
1	38:26	Naroa Sagarna

ANDOAIN

34	37:19	Eduardo Portillo
37	37:32	Jorge Morales
38	37:38	Unai Barrio
45	38:10	Iker Telletxea
49	38:27	Maikel Gomez
51	38:29	Asier Salinas
58	38:54	Javier Duque
74	39:42	Josu Arregi
80	40:16	Martin Askarai
84	40:34	Antton Arruti
85	40:36	Roberto Reyes
88	40:54	Gorka Salomón
89	40:54	Andoni Etxezarreta
93	41:10	J.Maria Flamarique
100	41:46	Antonio Prado
105	42:21	Javier Ruiz
113	42:52	Javier García
116	43:27	Dioni Agredano
118	43:38	Andoni Lanz
121	44:17	Roberto Truchuelo
124	44:36	Lauren Jimenez
125	44:37	L.Jose Lopez
126	45:08	J.Luis Hurtado
127	45:10	J.C. Mediavilla
130	45:20	Gorka Bueno
136	45:46	Patxo Nieto
137	45:46	Unai Arberas
143	46:00	J.Ramon Irizar
145	46:19	Eneko Zabala
146	46:20	Urko Otaño
147	46:30	Nekane Minguéz
149	47:04	Valentin Cueva
150	47:05	Mikel Collantes
162	48:47	Ainara Leibar

165	48:54	Mikel Alcaide
168	49:38	Ander Guerrero
173	50:03	Iñigo Ipinza
178	50:10	Iñaki Arruti
181	50:25	Xabier Carballés
182	50:48	Daniez Enriquez
188	51:02	Iñigo Girado
191	51:19	Iñaki Etxeberria
192	51:19	Mateo Ponce
195	51:35	M.Jose Goikoe.
196	51:35	Irene Jauregi
197	51:35	Peio Alkorta
198	51:36	Mikel Jauregi
200	52:22	Unai Azpiroz
204	:52:29	J.Carlos Solana
207	53:22	Ramon Fuentes
208	53:30	Marian Valde.
211	55:01	Saioa Erle
212	55:03	Ane Amondarain
213	55:04	Rakel De Jesus
214	55:48	Felix Tena
215	55:48	Peio Belaunz.
217	56:36	Felipe Millan
220	1:00:42	Begoña Canflanca
222	1:00:42	Raquel Conde
224	1:00:43	M.I. Lopez
225	1:00:43	Garbiñe Amotxategi

URNIETA

16	34:52	Asier Martinez
30	37:08	Unai Lizeaga
43	38:04	Ibai Guzman
46	38:14	Mikel Olano
52	38:39	Xabier Ansa
60	39:06	Gorka Pardavila
96	41:12	J.Mari Herrero
103	41:55	Eva Esnaola
190	51:15	Igor Lizasoain



HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 3

ANDOAIN Erromeria

Santa Krutz eguna ospatuko dute andoaindarrek. Maiatzaren 6ra bitarteko egitarau osoa, astekari honetan 8. orrialdean.

11:00 Meza ermitan.

URNIETA Erromeria

Urnietarrek Azkorten Santa Krutz gogoan hartuko dute. Ekitaldi guztiak, alboko informazio tartean. Udalak bus zerbitzua ipiniko du.

11:00 Meza ermitan.

URNIETA Deialdia

Eguzkitan Blai! udalekuetan hezitzaile gisa lanean aritzeko, deialdian izena emateko azken eguna.

lanpoltsa.urtxintxa.eus.

OSTIRALA 4

URNIETA Parte-hartzea

2019ko aurrekontua prestatzen hasteko karpa ipiniko du Gipuzkoako Foru Aldundiak.

10:00-19:00, San Juan plaza.

URNIETA Deialdia

Eguzkitan Blai! eta kirol udalekuetan izena emateko azken eguna. Udalekuak, ekainaren 25etik uztailearen 27ra arte.

Izen-ematea: Bertan, Lekaio.

URNIETA Kanpaina

Gure Esku Dagoren ekimena. Parte-hartzea sustatzen ari dira.

Guria ingurua, 18:00-21:00.



AIURRI

URNIETA Bizikidetza hizpide izango dute Denda Berri elkarteak

Urnietako bake eta bizikidetza talde herritarrek bizikidetza lantzeko topaketara gonbidatu nahi ditu urnietarrek. "Bizikidetza landu behar egin dela uste al duzu(e)?" galdera aztergai izango dute, besteak beste.

Maiatzak 7, astelehena. 18:00, Denda Berri.

LARUNBATA 5

URNIETA Erromeria

Aurrera Gure Ametsa dantza elkarteak ospakizuna antolatuko du: 10:30 San Juan plazatik Azkortera ibilaldia. Ondoren, Dantza eta hamaiketakoak.

12:30 Ermitatik San Juan plazara.

13:00 Dantza saio gidatua Patxi Perez eta Konpainiarekin.

14:30 Jaialdiaren amaiera eta bazkaria Oianumen.

10:30 San Juan plaza, irteera.

IGANDEA 6

URNIETA Erromeria

Lasartearek Azkorten erromeria antolatuko dute.

11:00 Meza ermitan.

ASTELEHENA 7

ANDOAIN Sanjuanak

Txupinazoa nork bota erabakitzeko azken eguna.

Bastero, Ataria, Andoain.eus.

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****Un sol interior**

Larunbata, 5:

19:30; 22:00.

Igandea, 6:

19:30.

Astelehena, 7:

19:30; 20:00.

Campeones

Larunbata, 12:

19:30; 22:00.

Igandea, 13:

19:30.


Astelehena, 14:

19:30; 20:00.

Leo da Vinci

Lar., 12: 17:00.

Ig., 13: 17:00.



SINOPSIAK

Un sol interior

Zuz.: Claire Denis **Herr.:** Frantzia (2017). **Aktoreak:** Juliette Binoche, Gérard Depardieu... **Iraupena:** 94 min.

Benetako maitasunaren bila

"Fragmentos de un discurso amoroso" Roland Barthesen entsegu lanean oinarriturik, filma egin dute Frantzia. Isabell protagonistak semea bakardadean hezitzen du,

dibortzioa lortu eta gero. Artista da ogibidez. Benetako maitasuna aurkitzea helburu du, baina bidean desengainuak bata bestearen atzetik ezagutu ditu.

OHARRA: MERKATU PLAZA ANDOAINEN

Makaldegian barrakak daudenez, merkatua Goikoplazan maiatzaren 7ra arte.

Santa Krutz eguna Azkorten

Ospakizuna Azkorten.**Maiatzak 3, osteguna:**

11:00 Meza ermitan.

11:45 Zabale eta Larrañaga trikitilariak.

13:00 Anjel Larrañaga eta Mikel Mendizabal bertsolariak. Jarraian, trikitixa saio berria.

14:00 Bazkaria Oianumen.

Izen ematea Oianume jatetxean bertan.

15:30 Bertsoak eta trikitixa Oianume jatetxean.

Joan etorriko bus zerbitzua

Pintore kaletik bus zerbitzua ipiniko du Urnietako Udalak, 09:30-14:30 artean. Azken igoera 12:00etan izango da.

Azkorteko Erromeria
2018ko maiatzak 6

11:00: Meza Azkorteko ermitan
12:00etatik aurrera: Herri-kirolak
Ttiriki-Ttarraka taldeak girotutako erromeria

Aurten ere autobus zerbitzua doan
Goizeko 9:00etatik aurrera, erretiratuon elkartetik (Kale Nagusia 40, Lasarte-Oria) ermitara.
*Ezin izango da kotzez ermitara igo, bidaa itxia egongo da.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN Malen
Zorionak Malen!
11 urte bete zenituen
apirilaren 25 ean.
Muxu eta besarkada
handi bat etxekoen
partetik.



URNIETA Markel
Apirilaren 21ean
Markelek 10 urte bete
zituen. Amona Mertxe
eta aitona Jexuxen
partez, muxu handia
eta aupa Erreal!




ANDOAIN Ongi etorri Mario
Apirilaren 27an Mario
jaio zen. Zorionak Inma,
Gustavo eta Hugo. Zuen
aro berria oso polita
izatea espero dugu.
Julen, Jose eta Nekane.



ANDOAIN Zorionak bikote
Apirilaren 28an eta
30ean, Alainek
eta Iñakik urteak
bete zituzten.
Zorionak eta
muxuak!!!



ANDOAIN Nora
Maiatzaren 10an Nora
Amasek 9 urte beteko
ditu. Zorionak
familiarren partez eta
muxu asko. Lander,
Luisa eta Gaizka.



ANDOAIN Jon
Jon Etxezarretak
5 urte beteko ditu
maiatzaren 4an.
Zorionak eta muxu
potoloak etxekoen
partetik.



ANDOAIN Ane
Ane Amutxastegik
maiatzaren 3an bete
ditu urteak. Zorionak
eta ondo pasa
Santakruzak. Muxu
asko etxekoen partetik.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 5 eta igandea 6
GOROSPE: Rikardo Arregi, 12.
943 592 415. Andoain.

URNIETA

Larunbata 5 eta igandea 6
ODRIOZOLA: Idiazabal, 18.
943 334 014. Urnieta.
Gauetz, bi herrietan: Castilla.
943 552 941. Hernani.

Maiatzak 18
OSTIRALA

17:30 URNIETA
Egape ikastolako
jolastoki estalia

7€
AIURRI

Aurre salmenta:
URNIETA

- Bikain okindegia.
San Juan Plaza.
- Xauxar Taberna.
Idiazabal Kalea.

ANDOAIN

- Aiurri. Arantzibia plaza.
- Ernaitza liburu-denda.
Zumea kalea.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri astekarian. Oso erraza da, eta dohanik! Hiru bide dituzu:

www.aiurri.eus

Sar zaitetz "Zorion agurrak" atalean, eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia igotzen diren unetik, urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ezean, erabili ezazu posta elektronikoa.

diseinua@aiurri.eus

Mezua bidali Aiurriko posta elektronikora, nahi duzun testua.

Arantzibia 4-5, behea


Etor zaitetz bulegora, Andoainera. Telefono zenbakia: 943 300 732.

Whatsapp bidez: 619 16 35 37

ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732
edo publizitatea@aiurri.eus

- ▶ Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ /
- ▶ Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

Eskelak
Aiurri:
90 euro



AZKEN HITZA

ALBA CABRERA
JAUREGI URNIETA

Begira gaude

Begiratua izatearen beldur irrazionalari eskopofobia deritzo. Bigarren plano batetik atera eta protagonistaren papera emateak jende asko urduritzen du. Eskuak izerdiz busti, bihotz taupadak azkartu, eztarria sikatu eta ahots kordak dantzan ipintzen ditu, munduaren zilborra norbera dela sentitzean.

Nire herrian eskopofobia gaixotasun endemikoa bihurtu da, etengabe gure kolkora begi batzuk itsatsirik daudela sumatzen baitugu, gogoz kontra herritar guztiak protagonista bilakatu.

Horiek lorik egin ez arren nekutzen ez diren begiak dira, malkorik isurtzen ez dutenak. Egunean nahiz gaueko iluntasunean arazorik gabe ikusten dutenak. Zer ikusi eta zer ez aukeratzeko dutenak eta ikusten duten hori luzaroan memorian gordeta edukitzen dutenak. Mugimendu errepikakorrek eginez gainetik begiratzen dutenak. Batzuen aginduak betetzen dituztenak eta beste askoren jo-muga direnak.

“Kameraz josita daude kaleak, halakorik ez galdeketeran...”

www.aiurri.eus

- Iritzia
- Postontzia

AZKENA



Apirilaren 26an eta 27an manifestazio eta elkarretaratzeak egin zituzten Andoainen, Nafarroako Auzitegiaren epaiaren aurka. AIURRI

'Ez ezetz da' kanpaina Santa Krutz jaietan

Sanferminetako bortxaketaren epaiak hautsak harrotu ditu, eta herrikide asko kalera irten da protesta egitera. Andoaingo Udalak, Santakruzetan hasita, eraso sexistak saihesteko kanpainari ekin dio 'Ez ezetz da' lelopean

Erredakzioa ANDOAIN

Bortxaketarik ez zela izan, gehiegikeria baizik. Nafarroako Auzitegiak "La manada"ren aurkako epaian horixe iradokitzeak mugimendu feminista eta, gizarte oro har asaldatu du. Euskal Herrian, espainiar estatuan eta mundu zabalean zeresan handia eman du eta desadostasuna agertzeko, gizarte kalera

atera da. Andoainen eta Urnietan erantzuna oso zabala izan da. Apirilaren 26ko elkarretaratzea ez zen bilkura hutsera mugatu, eta Goikoplazan bilduta egon ostean, dozenaka lagun Zumea plazaraino manifestazioan irten ziren. Egun horretan eta ordu horretan Andoaingo Udaltxean plenoa iragarrita zegoen. Protesta ekitaldiaren aurrean,

Udal ordezkari guztiak deialdiarekin bat egin eta plenoaren hasiera atzeratzea adostu zuten. Biharamunean, Goikoplazan ere protesta isila egiteko hainbat lagun bildu zen. Sentsibilizazio handia nabari da eraso sexistak eta bortxaketen aurrean. Urnietan ere aspaldiko bilkurarik handiena egin zuten San Juan plazan, ostiral arratsaldean.

"Ez ezetz da" kanpaina berezia jaietan

Andoaingo Udaleko Berdintasun sailak, Santakruzetan hasita, herriko eta auzoko jaietara zabalduko duen "Ez ezetz da" izeneko kanpaina martxan jarri du. Taberna eta txosna eremuan, eta baita kaleetan ere, eraso sexisten aurkako afitxak jarriko ditu. Esan bezala, kanpaina 11 udaberriko eta udako jai eremu guztietara zabalduko dute.



Afitxak atera ditu Udalak. UDALA

Kartelak eta informazioa jai eremuan

Taberna eta txosna eremuan gida moduko afitxak banatu dituzte, "Zer egin eraso sexista baten aurrean" izenburupean. Informazio praktikoa da. Bertan laguntza eskatzeko hainbat telefono zenbaki agertzen dira.

111AKADEMIA:REN SARIA 2017

Maiatzaren 10ean, ostegunarekin arratsaldeko 19:30etan

Andoaingo Bastero Kulturgunean. EKITALDI IREKIA

Idazle saritua:

Uxue Alberdi

Jenisjoplin

eleberriagarik



